

CIME 2011

Barcelona, 7-8 d'octubre de 2011 | www.cime2011.org



Congrés Iberoamericà de Masculinitats i Equitat: Investigació i Activisme
Congreso Iberoamericano de Masculinidades y Equidad: Investigación y Activismo
Congresso Iberoamericano de Masculinidades e Equidade: Pesquisa e Ativismo
Maskulinitateei eta Berdintasunari Buruzko Kongresu Iberoamerikarra
Congreso Iberoamericano de Masculinidades e Equidade: Investigación e Activismo

HOMES IGUALITARIS

AHIGE CATALUNYA
www.homesigualitaris.cat

Urriaren 7an eta 8an, ostiralean eta larunbatean, Espai Francesca Bonnemaison aretoan
(Sant Pere més Baix kalea, 7, Bartzelona)

Gizonak berdintasunaren erronkaren aurrean: eztabaidagai Bartzelonan nazioarteko topaketan.

Urriaren 7an eta 8an izango da **Bartzelonan Maskulinitateei eta Berdintasunari buruzko I. Kongresu Iberoamerikarra.**

AHIGErekin (Associació d'homes per la igualtat de gènere) federatuta dagoen **Homes Igualitaris (HI)** Kataluniako elkarteak antolatzen du ekimen hau, hiru ardatzen inguruan:

- maskulinitate gaiei buruzko **ikerketa**.
- **aktibismoa**: genero berdintasunaren edo ekitatearen aldeko gizonen mugimendua.
- gizonei zuzendutako **esku-hartzea eta politikak** sexuen arteko berdintasuna bultzatzeko.

 **HOMES
IGUALITARIS**
AHIGE CATALUNYA
www.homesigualitaris.cat

C/ vilamarí, 31, baixos. 08015 Barcelona. Telf: 934246870

Kongresuak izaera **multidiziplinarioa** du eta **zientzia sozialetako hainbat ikuspegi** hartuko ditu abiapuntu (soziologia, psikologia, hezkuntza, antropologia, historia, kultur ikasketak, zuzenbidea, ekonomia eta abar). Honako hauei dago zuzenduta: generoari eta maskulinitateei buruzko ikertzaileei, administrazio publikoetan hainbat arlotan (berdintasuna, hezkuntza, gazteria, sustapen ekonomikoa, gizarte zerbitzuak, osasungintza...) diharduten teknikari eta politikariei, elkarteei, GKEei eta berdintasunaren arloan dihardutenei, bereziki gizonekin ari direnei.

Azken urteetan, **Homes Igualitaris – Ahige Catalunya (HI)** erakundeak hainbat jardunaldi antolatu ditu maskulinitateei eta genero berdintasunari buruz. Ekimen horien zuzeneko ondorio gisa gehitu egin dira gizonei eta berdintasunari buruzko programak, tailerrak eta jarduerak Katalunian. Oraingoan, aurrerapauso bat egin nahi dugu **Bartzelona topagune** izan dadin Espainian, Latinoamerikan eta beste herrialde batzuetan **gizonen bizitzei eta maskulinitateen errepresentazio aldakorrei buruz** egiten ari diren ikerketetarako. Izan ere, zalantza barik, sexuen arteko gaur egungo desberdintasun bidegabeak gizarte arazo handiak sortzen dizkie batez ere emakumei, baina baita gizon askori ere, eta, hain zuzen ere, gai hori suspertzen ari da eta interes akademiko eta sozial handia du garai hauetan.

Gainera, ekimen hau aprobetxatu nahi da **berdintasunaren aldeko gizonen Espainiako koordinazioan** aurrera egiteko. Hori dela eta, eztabaida forum bat egingo da urriaren 8an, larunbatean, izenburu honekin: **"Gizonak genero berdintasunerako politika publikoetan sartzea: erronkak eta aukerak"**. Eztabaidarako topagune honen helburua da aktibistek, kolektiboek eta elkarteek ikerketetarako eta ekintzarako estrategia eta lehentasun komunak ezartzea.

Beraz, bi egun horietan Bartzelona **nazioarteko erreferentzia izango da gizonei eta berdintasunari buruzko azterlanetan eta ekintzetan.**

Prentsa harremanak – Juanjo Compairé. 637 742 163. jjcompairé@gmail.com
Informazio gehiago: <http://www.cime2011.org/index.html>